

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Martxoaren 20ko 156/2026, ebazpenaren laburpena, "udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko" dirulaguntzen deialdia

BDNS (identifikatzailea): 894356.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/894356>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalen (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira pertsona fisikoak eta juridikoak; pertsona fisikoak badira, jabeetako batek gutxienez udalerrri honetan erroldatuta egon behar du eta bertan eduki behar du ohiko bizilekua, eskabidea aurkeztu baino bi urte lehenagotik gutxienez.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan hobekuntzak edo eraikin berria egiteko obrak finantza daitezke, udalerrian bertan eginez gero, bai eta ohiko etxebizitzaren eraikuntza ere, nekazaritzako eta abeltzaintzarako ustiategietan titularrena baldin bada.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2013ko urtarrilaren 29an egindako batzarrean, udalerriko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza onartu zuen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 5.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 412.770.000.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2026ko abenduaren 24ra arte izango da.

Ozaeta, 2026ko martxoaren 23a

Alkate-udalburua
IGOR MEDINA ISASA